

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala



ETXAURIko Udala
Ayuntamiento de **ETXAURI**

Sarbil: lurraldea, energia eta etorkizuna

3. SAIOAREN AKTA. 2026/04/28

2026ko apirilaren 30ean



e

Aurkibidea

1.	SAIOAREN EZAUGARRIAK	3
2.	SAIOAREN GARAPENA.....	3
2.1.	SARRERA.....	3
2.2.	AKORDIOAREN PUNTUAK.....	4
2.3.	TALDEETAN GAIAK LANTZEA	4
2.4.	PROPOSAMENAK BATERATZEA ETA BALORATZEA	7
2.5.	ITXIERA ETA HURRENGO PAUSOAK.....	8
3.	SAIOAREN BALORAZIOA.....	9

1. SAIOAREN EZAUGARRIAK

Hauek izan dira saioaren datuak:

Eguna	2026ko apirilak 28, Etxauriko udaletxean
Orduetgia	18:00-20:00
Asistentzia	20 (10 emakume eta 10 gizon)
Saioaren bideratzaileak	Uxune Alustiza, Mikeldi Zeberio eta Joseba Beltza (Emun)

2. SAIOAREN GARAPENA

2.1. SARRERA

Sarbil, lurraldea, energia eta etorkizunaren deliberazio prozesuaren hirugarren saioa.



Hirugarren saio honetan, herritarren ideiak eta proposamenak jaso eta adosteko talde dinamika egingo dugu:

1. Hiru taldetan banatuta, bakoitzak gai bat landuko du.
2. Taldez aldatzen joango gara, denak mahai guztietatik pasa daitezen.
3. Aurreko taldeak egindako lanaren gainean eraikitzen joango gara, adostasunetara iristeko.

Ondoren, proposamen guztiak panel batean bateratu, eta proposamenak baloratuko ditugu, adostasunak non dauden eta garrantzia handiena zerk hartzen duen ikusi ahal izateko. Honekin bukatuko da saioa.



2.2. AKORDIOAREN PUNTUAK

Taldeetan banatu aurretik, hitzarmenaren puntu garrantzitsuenen errebasoa egin dugu.

Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Etxauri y la mercantil Sarbil Eguzki s.l. para la posible promoción de un proyecto de generación con energías renovables en el termino municipal de Etxauri:

1. **Participación pública:** *El promotor ofrecerá al menos el 51% de la propiedad de la planta a la participación público comunitaria.*
2. **Energía a precio más barato:** *El promotor ofrecerá la suscripción de contratos PPA a la ciudadanía y PYMES de la zona, para conseguir el suministro de energía a precios más competitivos.*
3. **Los beneficios, primero en la zona:** *Una parte de los beneficios resultantes de la operación industrial se destinarán a proyectos de carácter social en la comarca.*
4. **Mayor control ambiental:** *El promotor y el Ayuntamiento evaluarán los impactos ambientales de la planta tanto en la construcción como a los 2, 5, 10 y 15 años de su instalación, superando así las obligaciones establecidas en la normativa aplicable.*
5. **No replicable:** *De aprobarse este proyecto, será el único proyecto de instalación de energías renovables a desarrollar en el espacio del monte Sarbil.*
6. **Comité de seguimiento del convenio:** *Con el fin de coordinar las actuaciones previstas en el marco del presente Convenio, se crea una Comisión de Seguimiento, que estará compuesta por las personas del ayuntamiento y de la empresa promotora.*

2.3. TALDEETAN GAIK LANTZEA

Hiru mahaitan banatuta, ondoko gaiak landu ditugu, Emuneko pertsona baten gidaritza eta idazkaritza lanarekin talde bakoitzean:

1. MAHAIA: JABETZA ETA ENERGIAREN PREZIOA
2. MAHAIA: INGURUMENAREN ETA SARBILEN BABESA
3. MAHAIA: ONURA SOZIALAK ETA JARRAIPEN BATZORDEA

Mahai bakoitzean, hiru txandako ariketa egin da: aurreko saioetako kezkek eta nahiak ekarri eta balidatzea, ideiak eta proposamenak egitea, eta adostasunetara iristea. Txanda bakoitzaren ondoren taldez aldatu dira partaideak.



Hau da taldeetan jasotakoa:

1. JABETZA ETA ENERGIAREN PREZIOA

AKORDIOAN GEHITZEKO PROPOSAMENAK

- Enpresa sustatzaileak %100eko partaidetza eskaini dezala.
- Partaidetza lokala derrigorrez %51koa izatea, eta hori lortzea.

EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK

- Nola iritsiko gara gutxieneko %51 horretara, diru asko izango dela kontuan izanda?
- Jabetza ez bada %51ra heltzen, zer egin dezake udalak? Akordioa atzera bota?
- Zer da partaidetza publikoa? Zer komunitarioa? Norbanakoak pribatuak dira? Etxaurindarra Elkarteak zein paper izan dezake?
- Inbertsoreak sar daitezke? Goiener bezalako irabazi asmorik gabeko kooperatiba bati eskaintza egitea planteatu daiteke?
- Industria definitu daiteke? ETEei bakarrik, adibidez.
- Nola sortuko eta negoziatuko da energia merkeagoa, une honetako energiaren prezioa ia zero baldin bada?

2. INGURUMENAREN ETA SARBILEN BABESA

AKORDIOAN GEHITZEKO PROPOSAMENAK

- Inpaktuaren ebaluazioa ere legeak eskatzen duena baino exijenteagoa izatea, herritarren kezka nagusiak bilduz.
- Espreski aipa dadila erakunde independente batek egingo duela inpaktuaren ebaluazioa.
- POT3-n arautzen den desmantelamendua akordioan jaso: nork edo zein entitate juridikok egingo duen, fidantza nork jarriko duen...
- Epealdia 30 urtera arte luzatzea, 20 eta 25 gehituta.
- Enpresa sustatzailearen lurra espreski aipatu akordioan.

EBATZI GABEKO KEZKAK ETA GALDERAK

- Plakak euren bizitza bukaerara iristen direnean, proiektuaren luzapena legez posible da? Proiektuan jasota dago plakak berritzeko aukera?
- Bere lurrak inori ez saltzeko konpromisoa sar daiteke akordioan?

3. ONURA SOZIALAK ETA JARRAIPEN BATZORDEA

AKORDIOAN GEHITZEKO PROPOSAMENAK


- Proiektuen izaera izan dadila soziolaborala eta ingurumenekoa (mugikortasuna, elektrifikazioa, mendi eta basoen babesa...), bailara ikuspegiarekin, zuzenean eragingo dien kontzejuei ere ekarpena egingo dietena, eta irabazi asmorik gabeko enpresek kudeatuta.
- Herritarren partaidetza edo kontsulta bidez erabakitzea parte bat nora bideratuko den.
- Gizarte zibila (unibertsitatea, adibidez) edota herritarrek gehitu batzordean.
- Nafarroako Gobernuaren edo bestelako erakunde publikoen partaidetza gehitu (udalaz gaindikoa).
- Urtean behin akordio honen kontu ematea egin: zer gertatuko da akordioa betetzen ez bada?

4. UDALARENTZAT BESTELAKO PROPOSAMENAK

- Udalak ingurumen politika bat zehaztea Sarbil mendiaren ingurumen balioa handitzeko: tokiko zuhaitzak landatu, nekazaritzak erasandako inguruneak berreskuratu, pinuak kendu... Proiektuaren irabaziak politika hauetara ere bideratu.
- Udalaren plan urbanistikoan, energia proiektu handiak debekatzea.
- Udalaren industria planetan, erregulatu enpresa handiak ez daitezen etorri (energia arrazoiengatik, adibidez, datuen zentro erraldoiak), eta ETEak eta enpresa proiektu mota batzuk sustatzeko.
- Nafarroa mailako energia proiektuen plana exijitu, planifikazio energetiko bideragarria Nafarroa osorako, irizpide eta beharren arabera egin daitezen proiektuak.
- Nafarroako Gobernuaren inplikazioa lortu Jarraipen Batzorderako, eta akordio zehatzak lortzea bailarako udalek Gobernuarekin.
- Eskualdeko udalak energia proiektu handien kontra posizionatzea.
- Proiektua ez gauzatzearen aukera aztertzea, herrian sortzen duen zatiketa kontuan hartuta.

2.4. PROPOSAMENAK BATERATZEA ETA BALORATZEA

Talde bakoitzean adostutako proposamenak panel batera eraman ditugu, plenarioan aurkeztu ditugu eta galderetarako eta proposamenak osatzeko tartea zabaldu dugu.



Ondoren, pertsona bakoitzak lau gometxa hartu ditu eta proposamenak baloratu ditu:

- Zein da zure ustez marra gorria edo ezinbestekoa?
- Zeintzuk dira hiru proposamen garrantzitsuenak?



Hau izan da botoen banaketa:

PROPOSAMENA	PUNTUAZIOA
Partaidetza lokala gutxienez %51koa izatea, eta hori lortzea.	7 puntu laranja eta 6 urdin
Enpresa sustatzailearen lurra espreski aipatu akordioan.	5 puntu laranja eta 3 urdin
Proiektuen izaera izan dadila soziorlaborala edota ingurumenekoa (mugikortasuna, elektrifikazioa, mugikortasunean eragina izango dutenak...), eskualde ikuspegiarkein, zuzenean eragingo dien kontzejuei ere ekarpena egingo dietena, eta irabazi asmorik gabeko enpresek kudeatuta.	9 puntu urdin eta laranja 1
Nafarroa mailako energia proiektuen plana exijitu, planifikazio energetiko bideragarria Nafarroa osorako, irizpide eta beharren arabera egin daitezen proiektuak.	8 puntu urdin eta laranja 1
Inpaktuaren ebaluazioa ere legeak eskatzen duena baino exigenteagoa izatea, herritarren kezka nagusiak bilduz: sute arriskua, tenperatura igoera, akuiferoen kutsadura...	6 puntu urdin
POT3-n arautzen den desmantelamendua akordioan jaso: nork edo zein entitate juridikok egingo duen, fidantza nork jarriko duen...	4 puntu urdin
Eskualdeko udalak energia proiektu handien kontra posizionatzea	3 puntu urdin
Udalaren plan urbanistikoan, energia proiektu handiak debekatzea.	Puntu laranja 1 eta urdin 1
Espreski aipa dadila erakunde independente batek egingo duela inpaktuaren ebaluazioa.	Puntu urdin 1

2.5. ITXIERA ETA HURRENGO PAUSOAK

Hirugarren saio honekin amaituko dira lan-saioak. Orain, Emunek Etxauriko Udalarentzako herritarren proposamenak dokumentu batean bilduko ditu, hiru saioetako garapena eta ideiak kontuan hartuta. Udalak proposamen horiek aztertu, eta, maiatzaren 4ko saioan, erantzun bat emango dio proposamen bakoitzari. Horrela, udalak herritarrek deliberatutakoaren aurrean duen konpromisoa adieraziko du.

3. SAIOAREN BALORAZIOA

9 pertsonak erantzun dute balorazio galdetegia. Hauek dira emaitzak.

Baloratu 1etik 10era ondokoak:

Saioaren antolaketa	7.78
Landutako edukiak	7.56
Erabilitako metodologia	7.89
Saioaren gidaritza eta dinamizazio lanak	7.89
Saioan egon den giroa	8
Balorazio orokorra	7.39

Zerbait gehiago gehitu nahi zenuke?

- "Queda fuera la opción "no hacer el proyecto"".